

Eskautismoak batzen gaitu,
solidaritateak indartzen gaitu




2024ko MEMORIA



scouts®
Construir un Mundo Mejor

ASDE
Egipsoa



SCOUTS®
Construir un Mundo Mejor

ASDE
España

AURKIBIDEA



LEHENDAKARITZAREN GUTUNA

Adrián Rodríguez Pernas

Espainiako ASDE-Scouts
federazioaren presidentea





eskautismoaren ezaugarri nagusietako bat gizarteari zerbitzua emateko jarrera da. Indar horrek bultzatzen du mugimendu honek mundu hobeira eraikitzea, eta borondatezko ekintzarekin eta solidaritatearekin batzen gaitu.

Valentziako goi-geruzetako depresio isolatuaren hondamendiak azpimarratu du, hain zuzen ere, Espainiako gazteriak mugiarazteko eta antolatzeke duen gaitasuna, askotan zalantzan jarri egin dena. Espainiako ASDE-Scouts federazioaren ustez, gazteak eta haurrak dira gure erakundearen oraina eta etorkizuna berdintasunean, errespetuan eta erantzukizun sozialean oinarrituta eraikitzen duen motorra. Hori dela eta, gure programen ardatzak dira, besteak beste, haien parte-hartze soziala, haien eskubideen ezaguera, indarkeriaren prebentzioa, genero-berdintasuna edo borondatezko lana sustatzea eta indartzea.

Erakunde honetako presidente gisa, harro sentitzen naiz Valentzian bizi izan den gizarte- eta ingurumen-larrialdiaren aurrean Espainia osoko 2.000 eskaut baino gehiago nola antolatu ziren ikusteaz. Valentziako Erkidegoko eskauten taldeak, batez ere, baina baita beste eskualde askotakoak ere, berehala martxan jarri ziren dohaintzak jasoz, jarduera solidarioak antolatuz edo kaltetuen zeuden lekuetara joanez.

Espainiako ASDE-Scouts federazioak ere kontu bat jarri du martxan, ASDE-Scouts Valencians erakunde federatuak hautemandako beharrei erantzuteko. Kontu horretan 20.000 euro baino gehiago bildu dira ekarpen solidarioetan.

Gure gazteak eskaut mugimenduaren enbaxadorerik onenak dira; haien ekintzak, inguratzen gaituzten estereotipoekin apurtzeko eta eskautismoaren benetako balioa ezagutzeko modurik onena. Horregatik, aurtan ere eskaut gazteek hainbat toki eta komunikabideetan parte hartzea asko sustatu dugu, non zuzenean erakutsi ahal izan duten eskautismoak dakartzkien onurak edo borondatezko lanak haientzat duen zentzua.

Gure gazteek erakusten duten zerbitzuko jarrera berarekin, Espainiako ASDE-Scouts federazioaren presidente izateko bi urteei emango diet aurpegi, erronkari aurre egiteko prest dagoen eskauten talde batekin batera. Gure hautagaitzaren leloak, "Batzen gaituena", zuzenduko ditu gure erabakiak. Gure asmoa izango da kalitatezko eskautismoaren alde egiten jarraitzea, gure hezkuntza-programa eta boluntarioen zaintza bultzatuz erakundearen oinarri.

Asmatu zein huts egin, ez izan zalantzarik: nire taldeak eta biok zerbitzuko jarrerarekin egingo dugu bide hau, beti haurrak eta gazteak gure erabaki guztien erdigunean jarritz.

"Harro sentitzen naiz Valentzian bizi izan den gizarte- eta ingurumen-larrialdiaren aurrean Espainia osoko 2.000 eskaut baino gehiago nola antolatu ziren ikusteaz "

1- NORTASUNA

Eskaut taldea



Adrián Rodríguez Pernas
Presidenta



Ana María Aguilar Gómez
Presidenteordea



Ignacio Martín Guillem
Idazkaria



Alberto García Fernández
Diruzaina



Vicente María Corrales Sanz
Eskaut hezkuntza



Marta Arnaldos Payá
Taldeen laguntza eta hazkundera



Álvaro Ortega Maldonado
Borondatezko lana eta prestakuntza



Mohamed Abdelkader Kichouh
Komunikazioa



Sofia Galán Arévalo
Nazioartekoa



Silvia Fernández Arenas
Parte-hartzea



Eskaut talde berria 2024ko azaroaren batzarrean aukeratu egin zen.

Espainiako ASDE-Scouts erakunde zibila da, irabazi asmorik gabekoa, atxikimendu librekoa, anitza eta alderdikoia ez den izaera politikoa duena. 17 erakunde federatuk osatzen dute, eta 1912an sortu zen. 1977an onura publikokoa izendatu zuten. Munduko gazte mugimendurik handiena den Eskaut Mugimenduaren Mundu Erakundearen parte da.


ASMOA

Pertsona kritikoak hezten eta garatzen laguntzea, batez ere haurtzaroan eta gaztaroan, hitz-ematean eta eskaut legean oinarritutako balio-sistema baten bidez, pertsonak autonomia- eta lidergo-maila handiarekin garatzeko gaitasunekin haz daitezzen, mundu hobea sortzen laguntzeko.

IKUSPEGIA

2027rako, Espainiako ASDE-Scouts lurralde osoan ezarritako mugimendu bat izango da, erreferentzia izango dena gure gizartean formala ez den hezkuntzari eta haur eta gazteentzako aisialdiari dagokienez. Gizartearentzako zerbitzuaren eredu izango da ere bai, gizartearen eta ingurumenaren aldaketarekin duen konpromisoagatik eta borondatezko lanagatik, ezaguna bereziki haur eta gazteek parte hartzeko proposamenak gidatzeagatik eta defendatzeagatik.

BALIOAK



Askatasunean, justizian, berdintasunean, solidaritatean eta erantzukizun pertsonal eta sozialean hezteak.

- Pertsonari dagozkion balio espiritualak sustatzea.
- Izaera kritikoa, eraldatzailea eta parte-hartzailea piztea.
- Gure gizartean ulermena eta garapena bultzatzea.
- Haurrak eta gazteak ahalduntzea.

2 - ESKAUTEN ZENBAKIAK

34.426

Bazkide



7.833

Borondatezko langile

309

Eskaut talde



17

Erakunde
Federatu



71.432

Jarraitzaile Facebook, Instagram,
X eta Youtube plataformen artean

%2,18ko

elkarteen arteko hazkundera
2023. urtearekin alderatuta



3- ZER EGITEN DUGU?

★ HAURRAK

Parte-hartzea, bizi-kalitatea eta haurren eskubideak programa

Programa honen helburua da herritar guztiek, batez ere hurrek eta nerabeek, eskubide guztiak izateko sustatzeko jarduerak abian jartzea, adingabeek programaren kudeaketan eta ebaluazioan parte hartuko dutela bermatuz eta genero-ikuspegia txertatuz.

“Hautzaroak parte hartzen du” kanpaina eta Haurren eta Nerabeen Batzordearen parte-hartze prozesuak indartzeko ekintzak biltzen ditu.



PROGRAMAREN ZENBAKIAK

9.614

ONURADUN

936

BORONDATEZKO
LANGILE

Egindako ekintzen eta
zerbitzuen kopurua: 873

★ GAZTEAK



IKUSI GAZTE
ONURADUNEN
LEKUKOTZAK

Osasunerako hezkuntzako programa

Programaren helburu nagusia da gazteak osasunerako hezkuntzaren bidez hedatzea, informatzea, aholkatzea, sentsibilizatzea eta ahalduntzea, osasunaren aurkako arriskuen aurrean prebentziozko jarrerak bultzatuz eta ohitura osasungarriak sustatuz. 2024an, besteak beste, haien ongizate fisiko eta mentala bermatzeko ohiturak sustatu genituen, suizidioa saihesteko eta osasun mentaleko arazoaren estigmatiarekin amaitzeko asmoarekin.

PROGRAMAREN ZENBAKIAK

19.347

ONURADUN

696

BORONDATEZKO
LANGILE

Egindako ekintzen eta
zerbitzuen kopurua: 415

Aisialdian gazteei zuzendutako hezkuntzako eta GIB eta kutsapen sexualeko infekzioak saihesteko programa

GIB eta hiesari buruzko informazioa eskaintzea, jarrerak aldatzea, gazteen prebentziozko jokabidean esku hartzea, aurreiritziak eraistea eta estigmatizazioaren aurka borrokatzea du helburu eta, hala, eskaut taldeek eta erakunde federatuek prebentziozko esparru honetan egiten duten lana babesten du. Prebentzioa eta bizi-kalitatea hobetzea lantzen ditugu, hobekuntza pertsonalerako eta gure inguruko aldaketa-eragileen prestakuntzarako ikuspegiekin.

PROGRAMAREN ZENBAKIAK

10.200

ONURADUN

400

BORONDATEZKO
LANGILE

Egindako ekintzen eta
zerbitzuen kopurua: 130





Formala ez den hezkuntzatik abiatuta indarkeria saihesteko programa

Bere helburu nagusia da gazteen artean jakinaraztea, sentsibilizatzea eta saihestea jokabide antisozialak, indarkeriazkoak, arrazakeriazkoak, diskriminazio-mota guztietakoak eta beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik gorrotoa eragitekoak, baita talde-jokabidearen nahasmenduak ere. Ekintza horiek aisialdi hezitzailearen ikuspuntutik egiten dira, berdintasuna, gizarteratzea, bizikidetzeta eta parte-hartzea sustatuz.



PROGRAMAREN ZENBAKIAK

10.212

ONURADUN

676

BORONDATEZKO
LANGILE

Egindako ekintzen eta
zerbitzuen kopurua: 585



Genero-indarkeriaren programa

Eskaut taldeei zuzendutako **“Hasieratik amaitu”** kanpaina: helburua da genero-indarkeriako egoerak garaiz hautematearen inguruan sentsibilizatzea, identifikatzea eta hausnartzea, hau da, nola saihestu eta nola geldiarazi, maitasun erromantikoaren mitoak, generoko arrazoiengatiko jazarpena sare sozialetan, genero-eginkizunak eta -estereotipoak, jeloskortasuna, kontroleko jokabideak eta abar lantzen dituzten hezkuntzako ekintzak garatuz. **“Matxismoaren aurka, eskautismoa: indarkeria matxistak saihestea nerabeetan eta gazteetan”** lineako presakuntza, gazteei eta borondatezko hezitzaileei zuzenduta.



★ BORONDATEZKO LANA

Borondatezko eta parte-hartze sozialeko ekintzak eta herritarren eskubideak sustatzeko programa

Programak borondatezko ekintzak indartu eta sustatu nahi ditu, herritar aktibo, kritiko eta hobekuntza sozialaren alde konprometituta bermatzeko. Helburua da herritarren eta erakundeen arteko harremanak hobetzea, berdintasunezkoagoak eta inklusiboagoak diren gizarteak sortzen lagunduz, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari lehentasuna emanez. Borondatezko lan prestatuta, trebatuta, motibatuta eta erronka sozial berriekin konprometituta sustatu eta hazi nahi du.



PROGRAMAREN ZENBAKIAK

9.554

ONURADUN

1.468

BORONDATEZKO
LANGILE

Egindako ekintzen eta
zerbitzuen kopurua: 261



4 - GIZARTEAREN GAINENKO ERAGINA

Genero-berdintasuna

Eskaut ekintza handietan gune moreak ezartzearen lanarekin jarraitzen dugu. Apirilean, gune moreetan jarduteko gida eta erakunde federatuek eta eskaut taldeek zabaltzeko materialak eskatzeko inprimaki bat argitaratu genituen. 2024. urtean zehar 13 gune more sortu ziren, bi Espainiako AS-DE-Scouts federazioak garatuta eta bederatzi hainbat erakunde federatu eta eskaut talde garatuta. Azoketan, kultura-asteetan eta jaietan egindakoak azpimarratu nahi ditugu, eragin eta ikusgarritasun handia izan zituztelako. 80 bat borondatezko langilek parte hartu zuten.



Eskaut bekak

Hamaikagarren urtez jarraian, eskaut beken programarako deialdia egin genuen, familiako hainbat egoera ekonomiko direla eta, haien eskaut taldeko jardueretan parte hartzeko zailtasunak dituzten erakundearen eskaut taldeetako haur eta gazteei laguntzeko. Guztira 540 eskaera jaso eta berrikusi genituen ezarritako epearen barruan, eta 250 €-ko 180 beka eman ahal izan genituen, kanpainaren hornidura agortuz, 45.000 €-koa zela.



Eskaut jaialdiaren dohaintza
Virgen de Serrias Kultur Elkarteari

1.426 €



2024ko eskaut jaialdian jasotako ia 1.500 euro dohaintzan eman genizkion Virgen de Serrias Kultur Elkarteari. Bere lana da Errioxako Soto en Cameros udalerriaren ondare kulturala berreskuratzea, hain zuzen.

Begiratu Valentziako goi-geruzetako depresio
isolatuak kaltetutako lekuetan lagundu zuten talde
batzuen lekukotzak



Espainia osoko 2.000 eskaut
baino gehiagok lagundu zuten
2024ko urrian Valentziako goi-
geruzetako depresio isolatuak
eragindako gizarte- eta
ingurumen-larrialdian.

Valentziako Erkidegoan,
bereziki, gehien kaltetutako
eskualdea izan zelako, baina
baita beste erkidego batzuetan
ere, hala nola Gaztela-Mantxa,
Andaluzia eta Aragoi.

Herrialde osoko eskaut taldeak elkarlanean aritu ziren hainbat modutan, hala nola dohaintzak jasoz, ekintza solidarioak antolatuz eta gune kaltetuenetara joanez logistikan edo garbiketara laguntzeko. Eskaut legeari jarraituz, berriro ere erakutsi dugu eskauta baliagarria eta lagungarria dela, arduratsua dela eta ez duela ezer erdizka egiten, eta animotsu agertzen dela arriskuen eta zailtasunen aurrean.



23.825,83 €

Jaso ziren 2024an Valentziako goi-geruzetako depresio isolatuak eragindako hondamendiari laguntzeko.



5. AGERPEN INSTITUZIONALA

Ekitaldi nagusiak eta parte-hartze instituzionala



Scout Albayzín 524 taldeko Zoé Fauthoux eskauta hautatu dute Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatuko Kontseiluan **(CEPIA, gaztelaniako sigletan)** parte hartzeko.



Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna dela eta, Osasun Ministerioak antolatutako **“Gazte aitzindariak tabakoaren aurrean”** eztabaida-mahaian parte hartu genuen.



Gazteen Gurutze Gorriaren estatu-batzarren amaiera instituzionaleko ekitaldira joan ginen.



Gazteria eta Haurreriako Estatu idazkariarekin eta Injuve institutuko zuzendari nagusiarekin bilera izan genuen, gure hezkuntza-lana aurkezteko.



Lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu genuen Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin (**AECC, gaztelaniako sigletan**), prebentziozko ekintzak lantzeko eta **Zero Proiektuan** parte hartzeko. Proiektu horren helburua da 2030ean tabakorik gabeko belaunaldia lortzea Espainian.



Parte gara



Lankidetzak





Osasuna eta Gazteria Saria (Fundadeps).



Gazte Nortasun Klimatikoaren Saria (The Climate Reality Project Europe).



Gizarte Solidaritatearen Ordena Zibilaren Urrezko Gurutzea (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa).



Hirugarren Sektorean berdintasuna sustatzeagatik Aipamena (Emakume Progresisten Federazioa).



Gurutze Gorriaren Urrezko Domina, pertsona guztiak inolako diskriminaziorik gabe hezkuntza-prozesuan sartzearen alde egindako lanagatik.



Genero Indarkeriaren Aurkako Sari Nazionala.



Alares Saria, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzearen alde eta erantzukizun sozialaren alde egiten dugun lana aitortzeko.



Berdintasuna Defendatzearen Aldeko Ohorezko Aipamena (Gaztela-Mantxako Gobernuaren Ordezkaritza).



Ingurumenaren Sari Nazionala (Ingurumen Ministerioa).



Plumas Sariak (FELGTB).



Alfontso X.a Jakitunaren Ordena Zibileko Gorbata (Espainiako Gobernua). Haurren eta gazteen hezkuntza-lan integralaren aitopen gorena.



Gizarte Borondatezko Lanaren Estatuko Saria.



Merituaren Ordenaren Gurutze Zuria (Drogen Plan Nazionala).

Sariak





6- ZER ESATEN DA GURI BURUZ?

BEGIRATU AGERTU GAREN AZKEN ALBISTEAK



2024ko komunikazio- planaren emaitzak

2024an, kanpoko komunikazioko plan bati esker, eskaut mugimenduaren asmoa Espainia osoko pertsona askori hurbiltzea lortu genuen. Horren ondorioz, eskauten borondatezko lana ezagutzeaz gain, "eskautismo" hitzaren benetakoa esanahia ezagutu zuten, eta alde batera utzi zituzten eskauten inguruan betidanik egon diren estereotipo eta mito asko.



Komunikazioko eta harreman publikoetako ekintzak

- ★ Bi prentsa-ohar.
- ★ **+32** eragin baino gehiago komunikabideetan: lineako prentsa, irratia eta telebista.
- ★ **Eskualdeko komunikabide nagusiak:** Telemadrid, Canarias Radio, TV Canaria.
- ★ **Estatuko komunikabide nagusiak:** Telecinco, 20 Minutos, La Vanguardia, Capital Radio.
- ★ **Audientzia:** 7,3 milioi erabiltzaile.



Borondatezko langileak txertatzeko kanpainaren eragina zenbakietan



Borondatezko langile izan daitezkeen 680 pertsona baino gehiagorekin harremanetan jartzea.



Bi milioi iritzi baino gehiago.



11.000 klik baino gehiago.



Bi ekintza eragin-sortzaileekin =700.000 iritzi baino gehiago eta 1.000 klik baino gehiago.



7- GURE EKINTZAK

Roverway 2024. Uztailaren 22tik abuztuaren 2ra arte (Norvegia)

“North of the ordinary” lelopean, Espainiako taldeak, non parte hartu zuten gazteetatik 170 Espainiako ASDE-Scouts federaziokoak ziren, Europako 20 herrialde baino gehiagotako roverrekin batera Norvegiako paisaia ikusgarriak ezagutu ahal izan zituen, baita abentura handi bat bizi ere. Parte-hartzaileak hainbat nazionalitatetako talde txikietan elkartu ziren Norvegia osoko ibilbideak ezagutzeko. Dibertsio handiko egunak izan ziren, eskarmentuak, ezagutzak eta ideiak partekatzeko aukerarekin.



2024ko JOTA-JOTI

JOTA-JOTI munduko topaketa birtual eta irratizkorik handiena da, eta munduko 176 eskaut erakundeen arteko adiskidetasuna eta herritartasun globala sustatzen ditu. 2024an, urriaren 18tik 20ra izan zen eta zazpi erakunde federatutako 450 pertsonak parte hartu zuten.



18. Rover Foroa

Gune parte-hartzailea, hezitzailea eta gaztea izan zen. Urteko topaketa 2024ko azaroaren 23an eta 24an egin zen Guadarraman, Madrilen. Hainbat lan-mahai egon ziren: eskautismoa eta lekuak; **Rover Foroaren** egitura, araudia eta parte-hartzea; eta arrakastaren itzaropena eta autopertzepzioa.

Eskaut sariak

2024ko Eskaut Sariak Balate Mula eskaut taldeari lotutako **Palliri fundazioari**, Bolivian adingabeei zuzendutako proiektu hezitzaileengatik, eta Gaztela eta Leongo Gazteriaren Institutuari eman genizkien, Gaztela eta Leongo esploratzaileei emandako etengabeko laguntza eskertzeko.



Merituaren domina

2024ko ekaineko asanbladan, Merituaren Domina eman genion **David Navalón Mateosi**. Espainiako ASDE-Scouts federazioak ematen duen saririk eta aitortzen handienetako bat da.

2024ko Sendas Topaketa

Elkarrekin bizitzeko eta eskarmen-tuak partekatzeko eskauten topaketa da **SENDAS**, borondatezko eskauten ikaskuntzarako eta motibaziorako gunea, hain zuzen ere. Morgan, Bizkaian, egin zen, azaroaren 8tik 10era, eta hamar erakunde federatutako 28 pertsonak parte hartu zuten.



Kontseiluak eta batzarrak

2024an eskaut kontseiluaren sei bilera eta bi asanblada egin genituen. Bilera horietan hartutako erabakien artean, garrantzitsuenak izan ziren aurreko ekitaldiko urteko kontuak onartzea, salatzeko kanalaren politika onartzea, eraldaketa digitalerako plana onartzea, eta **2024-2027** aldirako eskaut talde berria hautatzea.





2024ko Eskaut Jaialdia

Logroñon, Errioxako hiriburuan, egin zen XLIX. Eskaut Jaialdia. 2.000 pertsonak hartu zuten parte, Espainia osotik etorritako haur, gazte, haien familia eta borondatezko langileak, besteak beste. Ingurumeneko, kulturako eta gizarteko jardueren bidez, parte-hartzaileek bizikidetzaren, eskarmentuen eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko hainbat jardunaldi gozatu zituzten. Horrez gain, musika-lehiaketa bat egin zen, non Aragoiko Eskauten Okapi 465 eskaut taldeak abesti onenaren saria irabazi zuen.



8- GARDENTASUNA ETA KALITATEA

2024Ko aurrekontua eta gastuak

Mundu hobeagoa eraikiz. Haur eta gazteen heziketan eta garapenean lagunduz, pertsona kritiko izan daitezen, hitzematean eta eskaut legean oinarritutako balio-sistema baten bidez



Gure finantzaketa: bazkideen kuota	486.095,12 €
Jasotako dirulaguntzak	617.552,44 €
Beste finantziazio-iturri batzuk: Dohaintzak	4.724,00 €
Beste finantziazio-iturri batzuk	63.322,72 €

41,49 %

Gure finantzaketa:
bazkideen kuota

52,71 %

Jasotako dirulaguntzak



0,40 %

Beste finantziazio-iturri batzuk: **Dohaintzak**

5,40 %

Beste finantziazio-iturri batzuk

617.552,44 €

Espainiako ASDE Scouts
federazioak jasotako
dirulaguntzak

**Gizarte Eskubide, Kontsumo eta
2030 Agendaren Ministerioa**

(% 0,7 deialdia)

415.743,58 €

67,32 %

**Gizarte Eskubide, Kontsumo eta
2030 Agendaren Ministerioa**

(Susperraldirako, Eraldaketarako eta
Erresilientziarako Europako Funtsa)

41.335,09 €

6,69%

**Gizarte Eskubide, Kontsumo eta
2030 Agendaren Ministerioa**

(INJUVE)

107.098,00 €

17,34 %

Osasun Ministerioa (GIB, kutsapen
sexualeko infekzioak, hepatitis birikoak
eta tuberkulosia kontrolatzeko dibisioa)

25.280,00 €

4,09%

Berdintasun Ministerioa

(Genero-indarkeriaren aurkako
Gobernuaren Ordezkaritza)

15.793,03 €

2,56%

**Gizarte Eskubide, Kontsumo eta
2030 Agendaren Ministerioa**

(Hirugarren sektorearen erregimen
orokorra)

10.609,37 €

1,72 %

**Kanpo Arazoetako, Europar
Batasuneko eta Lankidetzako
Ministerioa**

1.300 €

0,21%

Beste diru-sarrera batzuk

393,37 €

0,06 %

617.552,44 €

Jasotako
dirulaguntzak,
jarduera-
esparruaren
arabera.

Modernizazioa eta
eraldaketa digitala

41.728,46 €

Osasunerako hezkuntza

187.285,04 €

Erakundearen
funtzionamendua

117.707,37 €

Borondatezko lana sustatu
eta aitortzea

89.128,94 €

Indarkeriaren prebentzioa


133.109,41 €

Haurren eskubideak

47.293,22 €

Garapen jasangarrirako
hezkuntza

1.300,00 €



Egiaztapenak

Gaur egun, hiru egiaztapen ditugu: **ISO 9001**, **UNE-EN ISO 9001:2015** erreferentziako arauaren arabera kalitatea kudeatzeko sistema ezarri izanaren egiaztapena. Lealtad fundazioaren **"Dona con confianza"** zigilua, hirugarren sektoreko erakundeek gardentasunaren eta gobernu onaren ziurtagiria. **MásFamilia** fundazioaren **EFR (Empresa Familiarmente Responsable)** ziurtagiria, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko konpromisoa duen erakunde gisa.



9- BAZKIDE SOLIDARIOAK



LAGUNEN SAREA

Espainiako eskauten ekimen solidarioa

Laguntzeko arrazoiak

- ★ Zure ekarpena eskaut beken programara zuzenduko da. Programa horrek egoera ahulean dauden familietako haur eta gazte eskauten kanpamentuak edo kuotak finantzatzeko ditu, hain zuzen.
- ★ 2024an, lagunaren sarearen ekarpenek eskaut beken programaren % 10a finantzatu zuten.
- ★ Dohaintzan emandako zenbatekoaren zati bat PFEZ aitortzearen bidez erakundeei egindako dohaintzengatik egiten diren kargu fiskalak PFEZaren % 35etik % 80ra bitartekoak dira).
- ★ Lealtad fundazioaren "Dona con confianza" zigilua dugu.



Eskerrak eman nahi dizkiegu 2024an gure lagunaren sare solidarioaren parte izan diren pertsonari (hona hemen zerrenda daudenak eta haien borondatez ez egotea erabaki dutenak):

David Navalón Mateos, José Luis Fernández Solís, José Antonio Acosta, José Antonio Nieto García, Elena Cabezas Alcalá, María Antònia Ferrer Perelló, Antonio García Muñoz, Sara del Campo Noguerado, Diego Cobos Chacón, José Antonio Hierro Caldito, Víctor Jesús Cerisola Hidalgo, Javier Manuel Goñi Ganuzas, Javier Morales Hernández, David González Corchado, Rocío Bueno Ruiz, Francisco Ignacio Meri Rondón, Carlos Gordillo López, Enrique Hernández Díez, Lucía de La Rosa Pinedo, Lorena Rodríguez Jiménez, Jesús Espín López, Begoña Gómez Navarro, María Victoria Rico Trujillo, Jesús Miguel Muniesa Monge, Luis María Caro Arroyo eta Óscar López Novella.

★ **HEMEN ARRAZOI GEHIGARRI BAT AURKITUKO DUZU BAZKIDE LAGUNTZAILE BATEN ESKUTIK.**

Halaber, ESKERRIK ASKO **gure eskaut talde solidarioei:**

TATANKA 658 eskaut taldea
AZIMUT 493 eskaut taldea
PICU'L SOL 681 eskaut taldea
SAMSARA 729 eskaut taldea
FINESTRAT 733 eskaut taldea
AIZCORRI eskaut taldea

*Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gure webgunea

(**"Dohaintza egin nahi dut" atala**)

ASde EUSKADICO ESPLOratZAileak



Done Jurgi-ko argazki
lehiaketaren garaileak
izan ginen.



Udaberri Fest'24: haur, nerabe,
eta gazteen tratu on alde.



Marttukuntzen'24: auzoaren
gune berdeen zaborra biltzen.



Otso-taldearen lehen
otsoko-promesak.



Urgull-en
Donostiako
istorioa
ezagutzen.



SCOUTS[®]
Construir un Mundo Mejor

ASDE
España

Diruz lagundua:



injuve

